



Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea

Euskadiko liburutegi publikoen 2012ko estandarrak

Vitoria-Gasteiz, 2012

Sarrera

Testuingurua eta abiapuntuak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 2012an abian jarritako “Irakurri Konektatzeko” Irakurketa Planaren testuinguruaren barruan, *Euskadiko irakurketa publikoaren mapa* eguneratu eta hobetu dugu, *Euskadiko liburutegiei buruzko 11/2007 Legeak, urriaren 26koak*, aurreikusten duen «liburutegi-plangintza estrategiko eta operatiborako tresna» gisa. *Maparen* oinarritzko elementuetako bat euskal udalerrietan liburutegi publikoen zerbitzua normalizatu eta orekatzen lagunduko duten estandarren definizioa da.

Estandarrok hemen aurkezten ditugu, eta osatzeko, hurrengo ikuspegiak hartu ditugu abiapuntu:

- *Euskadiko liburutegiei buruzko 11/2007 Legean* ezarritakoa. Irakurketa publikoko sarearen antolaketari buruzko 26. artikuluan, liburutegien eta liburutegi-zerbitzuen tipologia definitzen du udalerrien tamaina kontuan hartuta, eta horiei dagozkien biztanleria-taldeak ezartzen.
- 2007an, aipatu legea promulgatu baino hilabete batzuk lehenago argitaratutako *Euskadiko irakurketa publikoaren mapan* zehaztutako parametroak. Parametrooi «erreferentziako adierazle» izena eman zaie, eta, ahal den neurrian, *Irakurketa publikoaren mapa* berriaren ezaugarrietara egokitu eta horien arabera eguneratu dira.
- Nazioarte mailako liburutegi publikoen estandarrak, zehazki, IFLA/UNESCOk zerbitzu-elementu batzuetarako argitaratutakoak, bai eta azkenaldian beste zenbait autonomia-erkidegotan plazaratutako estandarrak ere, eta *Irakurketa, Liburu eta Liburutegien ekainaren 22ko 10/2007 Legean*, estatu mailakoan, adierazitakoa.
- Euskadiko liburutegi publikoen zerbitzuaren egungo adierazleen analisia eta horien azken urteotako bilakaera, eta euskal biztanleriaren banaketa demografikoaren azterketa.

- Informazioaren eta liburutegien esparruan gertatzen ari diren aldaketa sakonen testuingurua: zenbait joera kontuan hartu dira, baina, batez ere, berrikusketa-lan sakona eta sistematikoa egitea eskatuko du hurrengo urteetan zehar. Aldaketa horiek parametro guztiak hartu ahaliko dituzte, eta, ziur aski, eraikin eta ekipamendu, informatika-baliabide, zerbitzu-eskaintza eta abarrei bereziki eragingo diete.

Bestalde, estandar horiek *Irakurketa Publikoko Sarearen Mapa* berriaren osagai moduan funtzionatzeko garatu dira. Web-tresna gisa egituratu den mapa horrek estatistika-datuek adierazten duten Euskadiko udalerrri bakoitzaren egungo egoera eta *estandar* arabera izan beharko lukeena balioztatzeko aukera ematen du, liburutegi-garapen homogeneoa planifikatzea xede.

Hala, *estandarrok*, lehenik eta behin, udal-liburutegi zerbitzuak udalerrri bakoitzean lortu beharreko parametroak definitzen dituzte, bertan dauden liburutegi eta zerbitzugune guztiak zenbatuta, eta kontuan hartu gabe beren titulartasuna edo kudeaketaren ardura duen erakundea, dagokien udal-sarean benetan integratuta dauden, edota *Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean* jada txertatuta dauden.

Bigarrenik, beren elementu ugarietan, banakako liburutegien parametroak ere definitzen dituzte estandarrek, kasu bakoitzean lortu beharreko gutxieneko balioa zehaztuta, normalean.

Ezaugarriak

Estandarretan definitutako parametroak eta balioak ez dira gaur egungo Euskadiko batezbestekoaren isla; aldiz, liburutegi publikoaren zerbitzua hobea den euskal udalerrien egoera jasotzen dute. Bi irakurketa dituzte, beraz: alde batetik, gutxieneko balio gisa, udalerrri eta/edo liburutegi zehatz askok gainditu ditzaketenak, noski (eta hala da, egiaz); eta bestetik, epe motz, ertain edo luzerako helburu gisa, egungo egoera estandarrok zehazten duten eredutik aldentzen den kasuetan.

Era horretan, *irakurketa publikoko sarearen mapatik* kanpo baliatu daitezke *estandarrok*, liburutegietako arduradun politikoen eta profesionalen zerbitzura dagoen gida edo jarraibide multzo baten moduan. Eta ez dira nahitaez bete beharreko arautzat joko, baizik eta kasu bakoitzean malgutasunez egokitu ahalko den eta egokitu beharko den kalitate-helburu gisa ulertuko dira. Beste alde batetik, estandarren hedapen publikoaren bidez, herritarrek balioztatu ahalko dute zer-nolako konpromiso maila duten erakundeek liburutegi publikoen zerbitzuarekin.

Estandarrak aldizka berrikusi behar dira. Hemen aurkezten ditugunak 2012ko bertsiookoak dira, eta aldizka eta sistematikoki eguneratu beharko ditugu, liburutegien errealitatearen, euskal biztanleriaren eta informazioa eta ezagutza sortzeko eta bertara sartzeko testuinguru teknologikoaren bilakaerak hala eskatuko baitu.

Bi motako *estandarrak* daude: estandar kuantitatiboak eta estandar kualitatiboak edo irizpideak. Lehenengo kasuan, liburutegi publikoen esparruko adierazle normalizatuei lotzen zaizkie gehienbat, eta formulazio ezberdinak dituzte: indize edo *ratio* moduan, liburutegi-balio bat biztanleriarekin erlazionatzen duena, hala nola biztanle bakoitzeko liburu-indizea; ehuneko gisa, oso bat banatzeko gida moduan balio duena, adibidez, liburutegi bateko azalera osoa hainbat ataletan banatzeko; edo, besterik gabe, balio kuantitatibo gisa, bereziki liburutegi (edo udalerrri) batek elementu zehatz batean (gutxieneko azalera kasu) lortu beharreko gutxieneko balioa ezartzen denean.

Estandar kuantitatiboak, lehenik eta behin, biztanleria-tarte bakoitzarentzako euren estandar edo indize orokorrarekin aurkezten ditugu, eta, ondoren, garatu egin ditugu, adibidez, tartekoak baino biztanle gutxiago edo gehiago dituzten udalerriei estandarra aplikatzearen emaitza gisa.

Biztanleria-tarteak

Liburutegi publikoen estandarrak zerbitzua eman behar zaion biztanleria edo komunitatearen tamaina kontuan hartuta garatzen dira beti, irizpide orokor bati jarraituta. Horren arabera, hiri-kontzentrazioetan, behera egiteko joera dute estandarren balioek, eta aldiz, pixka bat handiagoak izan ohi dira herri txikietan eta landa-eremuan. Funtsezkoa izan da, beraz, estandarrak garatzeko erabili beharreko biztanleria-tarteak definitzea, eta horretarako, biztanleriaren egitura demografikoa aztertzeaz gainera, indarreko araudian zehaztutako jarraibideak abiapuntu hartu ditugu.

Hasteko, Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 1/2007 Legeak, bere 26. artikuluan, liburutegi-zerbitzu edo liburutegi mota bakoitzari lotutako muga demografikoa ezartzen ditu; zehazki, liburutegi publikoa izateko udalerrri batek eduki beharreko biztanle kopurua xedatzen du, bai eta hiri-sareak ezartzea beharrezkoa bihurtzen den tamaina ere. Bestalde, *EAEko irakurketa publikoaren mapak (2007)* zazpi biztanleria-tartetan sailkatu zituen euskal udalerrriak. Estandarrei buruzko argitalpen honek, araudia errespetatuta eta Euskadiko biztanleen banaketa demografikoa eta egungo liburutegi-garapena oinarritzat hartuta, biztanleria-tarteak ahal adina sinplifikatu nahi ditu, eta hala, hurrengo lau tarteetarako parametroak definitu ditu:

- 3.000 biztanlera arte

11/2007 Legearen arabera, 3.000 biztanlera arteko udalerrriek ez dute zertan liburutegi publikoa izan. Nolanahi ere, udalerrri horien % 68,1ek (guztira 111 udalerrrik) liburutegia dute; hortaz, zerbitzu horietarako estandarrak ezarri ditugu.

Biztanleria-muga horren azpitik, Euskadiko biztanleen % 1,3 biltzen dituzten 52 udalerrriek (2010-12-31ko datuak) ez dute liburutegi publikoaren zerbitzurik, Internet bidez eskuragarri daudenez aparte. Horientzat, 11/2007 Legeak liburutegi-zerbitzu mugikorrek edo irakurketa publikoa sustatzeko zentroak ezartzeko aukera aurreikusten du, baina ez da araudi-garapenik egin. Hori dela eta, estandar hauek ez dute udalerrri horientzako parametrorik ezartzen. Aurreragoko edizioetan heldu beharko zaio alderdi horri.

- 3.001 eta 20.000 biztanle artean

3.000 biztanletik gorako euskal udalerrri guztiek liburutegi publikoa dute, baina 11/2007 Legeak 5.000 biztanletik gorakoentzat baino ez du ezartzen betebeharrori. 3.000 eta 5.000 biztanle artekoen kasuan, legeak dio Eusko Jaurlaritza arduratu behar dela udalerrri horiek liburutegia izateaz. Guztira 70 udalerrri dira, eta Euskadiko biztanleen % 28,8 biltzen dituzte.

- 20.000 biztanle baino gehiago, hiriburuak salbu

Udalerrri horiek liburutegi publikoen hiri-sarea eduki behar dute. Liburutegi nagusi batek eta hiri-liburutegi batek edo gehiagok osatuko dute hura. 11/2007 Legeak 30.000 biztanletik gorako udalerrientzat ezartzen du betebeharrori, baina zenbait hilabete lehenago argitaratutako mapak 20.000 biztanletan jartzen zuen muga, gainerako autonomia-erkidegoetan zabalduago dagoen irizpidea. Horregatik, hiri-sareentzat azken biztanleria-atalase horixe erabiltzea erabaki dugu edizio honetan.

Bitarte hori ia-ia bat dator 20.001 eta 100.000 biztanle arteko euskal udalerrien tartearekin. 2011ko urtarrilaren 1ean, Barakaldo zen hura gainditzen zuen udalerririk bakarra probintzia-hiriburu ez zirenen artean (100.061 biztanle zituen). Hori dela eta, homogeenagoa da hiri hori tarte horretan sartzea (hiriburuak ez direla zehaztuta), hiru euskal hiriburuaren taldean txertatu ordez. Guztira 15 udalerririk sartzen dira hemen, zeinetan Euskadiko biztanleen % 29,2 bizi baitira.

- Hiriburuak

Azkenik, hiru euskal hiriburuetan biztanleen heren bat baino apur bat gehiago bizi da (% 36,1) eta ezaugarri berezi batzuk dituzte euskal liburutegiaren esparruaren barruan. Esaterako, hiriburu bakoitzak bere foru-aldundiak eutsitako liburutegi bat dauka.

Definitutako elementuak

Estandarrak honako bloke edo atal hauetan garatu dira:

- Zerbitzuak

Hasteko, herritarrentzako zerbitzuak eta zerbitzu zentralak berezi behar ditugu. Herritarrentzako zerbitzuen artean ere bereizketa egin behar dugu. Bateko, aurrez aurreko zerbitzuak ditugu, liburutegi zein zerbitzuguneetako eraikin eta ekipamenduetan ematen direnak; besteko, Interneteko zerbitzuak. Horietara sartzeko, sarera konektatutako gailuak erabili ditzakete herritarrek, liburutegira joan behar izan gabe. Internet bidezko zerbitzu horiek modu zentralizatuan eskaini ohi dira autonomia, probintzia edo hiri-sare mailan.

Zerbitzu zentralak, berriz, hauek dira: parte hartzen duen sareko atal nagusitik eta/edo liburutegi-zerbitzu autonomikotik liburutegi edo zerbitzugune batek jasotzen dituen zerbitzuak.

- Zerbitzuguneak

Bere biztanle kopuruaren arabera udalerrri bakoitzak izan behar dituen liburutegi edo zerbitzuguneen kopurua eta mota zehazten du. Edonola ere, egun liburutegirik ez duten 3.000 biztanletik beherako udalerrien kasuan, ez dago zehaztuta biztanleei eskaini beharreko zerbitzu mota (Legeak ezarritakoarekin bat, zerbitzu mugikorra edo liburutegi-zerbitzuen hedapen jakin bat izan beharko litzateke).

- Azalera

Indize orokor bat ezartzen da, zerbitzua eman behar zaien biztanleen kopuruaren arabera, bai eta liburutegi mota bakoitzarentzako gutxieneko azalera eta espazioak banatzeko irizpideak ere.

- Ordu-tegiak

Liburutegi mota eta biztanleria-tarte bakoitzarentzat, irekita egongo diren gutxieneko orduak eta egunak ezartzen dira, asteko banatuta.

- Sarbide libreko funtsak

Funts edo bildumen kasuan, IFLAk ezarritako nazioarteko estandar tradizional bat dago, eta estandar hauek garatzeko irizpide orokor gisa balio du.

Dokumentu, liburu eta soinu-dokumentuentzat (ikus-entzunezkoak eta elektronikoak) indize kuantitatibo bereziak ezartzen dira, zeinen balioa biztanleriaren tamainarekiko alderantziz aldatzen baita. Estandar horientzat, oro har erabilitako biztanleria-tarteak erdiko tarteetan banatzea lagungarri izan zaigu. Halaber, dokumentu horien guztizko kopuruaren gaineko erreferentziako kantitateak ezartzen dira, bai liburutegi mota ezberdinentzat bai hiri-sareen barruko banaketari dagokionez.

Dokumentu elektronikoen eta aldizkako argitalpenen kasuan, zenbait irizpide ez-kuantitatibo txertatu ditugu, liburutegiek gida moduan erabili ditzaketenak beren bilduma-politika ezartzeko orduan.

Funtsak mantentzeko (eskurapenak eta bajak) eta bilduma berriak garatzeko irizpideek IFLAren gomendioak jarraitzen dituzte.

Azkenik, haur eta helduentzako atalen artean funtsak banatzeko irizpideak erantsi ditugu: informazio- eta kontsulta-obrak, fikziozkoak eta ikus-entzunezko dokumentuak bereizi ditugu horretarako. Halaber, gomendio labur batzuk gehitu ditugu, tokiko bildumaren eta sare berberaren barruko funtsen osagarritasun posiblearen inguruan.

- Sarbide informatikoa duten guneak

Estandarrek tokiko liburutegientzako indizeak eta hiri-sareetako liburutegientzako gutxienekoak zehazten dituzte, bai eta prestakuntza-geletako sarbide informatikoko guneentzat gomendatutako hornidurak ere. Era berean, konexio, software, ekipamendu osagarri eta abarrei eta horiek liburutegietako baliabide eta zerbitzuetan txertatzeari buruzko zenbait irizpide ez-kuantitatibo proposatzen dira.

- Langileak

Estandarren azken blokea liburutegietako giza baliabideei eskainita dago, «lanaldi osoko langile» gisa hartuta beti. Estandarrok gutxieneko langile kopurua ezartzen

dute, biztanleria-tarteak eta horien ondoriozko liburutegi motak aintzat hartuta. Kategoria bakoitzeko langileen gutxieneko kopurua ezartzen da, administrazio publikoetako langileentzako indarreko araudian jasotako sailkapena jarraituta (A1 eta A2 taldeak liburuzaintzat, eta C1 eta C2 taldeak liburutegiko laguntzaileentzat edo antzekoentzat). Tamaina handiagoko udalerrien kasuan, langile teknikoak eta administrazioak ere aurreikusten dira.

Estandarrek herritarren zerbitzura dauden langileak eta zerbitzu zentraletakoak edo barne-lanekoak barne hartzen ditu. Kanpo gelditzen dira, ordea, segurtasun, garbiketa eta administrazioako langileak, edo mantentze informatikoaz arduratzen direnak, hiri-sarerik gabeko udalerrietan.

Edizio honetan ez ditugu sartu tradizionalki liburutegien estandarren zati izan diren zenbait elementu. Izan ere, gure ustez, liburutegi publikoaren zerbitzuaren egungo eraldaketek horien normalizazioa zailtzen dute, edo zentzua kentzen diote euren zehaztapenari. Horien adibide dira bildumentzako apalategien metro linealak eta geletako irakurketa-guneak, 2007ko mapak barne hartzen zituenak, bai eta aldizkako argitalpenak ere; horien kasuan irizpide batzuk zehaztu ditugu, baina ez indize kuantitatiborik.

Lan-prozesua

Irakurketa plana idazteko zein bertako zenbait proiektu garatzeko, Germán Sánchez Ruipérez Fundazioaren lankidetzara aktiboa izan du Kultura Sailak. Eta hemen aurkezten ditugun *estandarren* kasuan ere halaxe izan da.

Horiek osatzeko, Kulturak Sailak lantalde bat eratu zuen, fundazio horretako Analisi eta Ikerketa Sailari ekarpenak egin eta gainbegiraketa eta amaierako baliozkotzea gauzatu dituen. Kulturen Aldeko Herritartasun Kontratuko liburutegi-taldetik abiatuta sortu zen taldea, eta bertan, Eusko Jaurlaritzako Irakurketa Planeko eta Liburutegi Zerbitzuko zenbait koordinatzailek eta Germán Sánchez Ruipérez Fundazioko Analisi eta Ikerketa Sailak ere parte hartu dute.

Honako hauek osatu dute taldea: José María Barandiarán (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila, *Irakurketa Planeko* koordinatzailea); Francisca Pulgar (Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzua); Eva Alberdi (Eibarko Udal Liburutegia); Jone Arroitauregi (Galtzagorri, Irakurketa Planeko koordinatzailea); Teresa Castro (Gasteizko Estatuko Liburutegi Publikoa - Ignacio Aldecoa Kultur Etxea); Sara Gago (Ermuko Udal Liburutegia); Fernando Juárez (Muskizko Udal Liburutegia); Esperanza Iñurrieta (Euskal Herriko Unibertsitateko Liburutegia); Anabel Regalado (Getxoko Udal Liburutegia); Txaro Valverde (Eusko Legebiltzarreko Liburutegia); Obdulia Vélez (Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarte -ALDEE-); Hilario Hernández eta Andrés S. Barba (Germán Sánchez Ruipérez Fundazioko Analisi eta Ikerketa Saila).

Euskadiko Liburutegi publikoetarako estandarrak, 2012

Zerbitzuak

Zuzeneko zerbitzuak

Liburu eta era guztietako dokumentuen etxerako mailegua
Liburutegiko bildumaren era guztietako dokumentuen kontsulta
Orokorreko erreferentzia eta informazio bibliografikoa, tokiko eta komunitateko informazioarekin batera
Internet-eko sarbidea liburutegiko ekipamenduaren bidez
Wifi eremua
Guztiak erabili dezaketen softwarearen bidezko multimedia ekipoetarako sarbidea
Lineako baliabide digitaletarako sarrera
Dokumentuen erreprografia zerbitzua
Liburutegien arteko mailegua eta dokumentuen eskurapena
Erabiltzaileen prestakuntzako eta informazio-alfabetizazioko ekintzak
Haur, gazte eta helduentzako irakurzaletasuna sustatzeko ekintzak
Bizi guztirako prestakuntza eta ikaskuntza programak
Hezkuntza formalerako eta autoikaskuntzarako laguntza zerbitzuak
Haur, gazte eta helduei zuzendutako ekintza kulturalen programazio egonkorra
Internet bidezko zerbitzuak

Internet zerbitzuak

Katalogoa kontsultatzea
Informazio orokorra: ordutegia, kokapena, historia, zerbitzuak, liburutegia zifratu, etab.
Tokiko eta komunitateko informazioa
Informazioa eta Erreferentzia
Mailegu berritzea
Material erreserba
Bazkide txartelaren eskabidea
Liburutegien arteko maileguaren eskabidea
Desiderata edota liburutegiak ez dituen liburuen eskaerak
Ordenagailuen erabilerarako erreserba
Instalazioen erreserba: ekitaldi aretoa, erakusketa-gela
Ekintzen agenda
Liburutegiari buruzko albisteak
Erabiltzaileen parte-hartzerako atalak: liburu bat gomendatu, etab.
Liburutegiko argitalpenak eskuratzeko aukera: irakurketa gidak, nobedadeak, etab.
Datu-baseetara sarbidea
Blogak, wikiak eta komunitateak sare sozialetan
Liburutegi digitala tokiko gaietan
Liburu elektronikoak jasotzeko aukera
Prestakuntzarako tutorialak eta laguntza zerbitzuak
Langileen direktorioa
Iradokizunen postontzia

Hiri-sare, probintzia eta maila autonomikoan zentralizatutakoak

Zerbitzu zentralak *

Sareko plangintza estrategikoa
Intranet eta Internet zerbitzuen bidezko zerbitzu profesionalak
GGBBen kudeaketa
Sareko baliabide informatiboen kudeaketa eta/edo koordinazioa
Sareko katalogo kolektiboa
Sare guztirako erabiltzaileen prestakuntzarako eta ALFIN-erako ekintza plana
Sare guztirako haur, gazte eta helduentzako irakurzaletasuna sustatzeko ekintzen programazioa
Haur, gazte eta helduei zuzendutako ekintza kulturalen programazio egonkorra
Prestakuntza programen programazio egonkorra
IKT aholkularitza eta kudeaketa
Baliabide digitalen sareko sarbidea
Sare edo sistema osoko estatistikak eta ebaluazioa

* Liburutegiei edo sareko zerbitzuguneei, orokorrean, liburutegi nagusietatik edo dagokien lurralde-eremuetako liburutegi-zerbitzuetatik (hiri-sistemak, eskualdekoak edo probintziakoak) emandako zerbitzuak

Zerbitzuguneak

Estandarrak Zerbitzua Puntuak

3.000 biztanle bitarteko udalerrietan	Liburutegi edo bibliobus edo liburutegiko-hedameneko zerbitzu bat
3.001etik 20.000ra biztanle bitarteko udalerrietan	Liburutegi 1
20.000 bizt.-tik gora : hiri-sarea	
20.001etik 30.000ra bizt.	1 lib. nagusi + 1 hiri-lib.
30.000 bizt.-tik gora	1 nagusi + 1 hiri-lib. 25.000 biztanleko edo zatikiko

Garapena praktikoa

Hiri-sareak:	Mota	Behetik	Goitik
20.001etik 30.000ra bizt.	L. Nagusia +	Hiri liburutegi 1	
30.001etik 100.000ra bizt.	L. Nagusia+	2 hiri liburutegi	4 hiri-lib.
Hiriburuak	L. nagusia +	8 hiri-lib	15 hiri-lib.

Beste irizpide batzuk. Zerbitzuguneak

Zentralitate demografikoa. Komeni da liburutegiak egotea herriaren edo auzoaren erdigunean.

Hiri-seinaleztapena. Herriaren hiri-seinaleztapenak liburutegia jaso behar du.

Garraio publikoak hurbil. Komeni da eskura izatea garraio publikoetarako sarbidea.

Aparkalekuak. Bizikletetarako eta beste ibilgailuetarako aparkalekuak oso erabilgarriak izan daitezke.

Eremua

Eremua (guztira)

Estandarra:

50 m² + 0,05 m² biztanleko

Gutxieneko eremuak:

Udal Liburutegia: 100 m²

Hiri-lib. nagusia: 1.500 eta 2.500 m² artean

Hiri-liburutegia: 350 m²

Garapena praktikoa

	Estandarra	Eremua (m ²)		
		Behetik	Goitik	
Gehienez 20.000 biztanle	50+(0,05*bizt.)	100	1.050	
		Eremua	Behetik	Goitik
		liburutegiak	Guztira	Guztira
Hiri-sistemak	Mota	(m2)	Tartea	Tartea
20.001etik 50.000ra bizt.	L. Nagusia	1.500		
	1-2 Hiri-lib.	350	1.850	2.200
50.001etik 100.000ra bizt..	L. Nagusia	2.000		
	3-4 Hiri-lib.	350	3.050	3.400
100.000 bizt.-tik gora	L. Nagusia	2.500		

5-15 Hiri-lib. 350 4.250 7.750

Beste irizpide batzuk. Eremua

350 m2-tik gorako liburutegietako guneen banaketa orientatiboa	
Harrera-gunea	%10
Gazte-helduen gunea (hemeroteca eta mediateka barne)	%40
Haurren gunea	%20
Balio anitzeko gunea	%15
Barne-lanerako gunea	%10
Prestakuntza gunea	%5

Iturria: Liburutegien hiri-sistemak

·Garrantzitsua da altzariz jantzitako gune bat izatea, era modernoan dekoratua, atsegina, erakargarria eta goxoa.

Astean irekitako orduak

Estandarrak

Liburutegi publikoa 3.000 bizt. bitarteko udalerrietan: 18 h. astean, 5 egunetan banaturik

Liburutegi publikoa 3.001etik 20.000 biztanlera bitarteko udalerrietan: 20 h eta 40 h artean, astean, 6 egunetan banaturik

20.000 bizt-tik gora (hiri-sistemak):

L. nagusia: 60 h eta 75 h artean, 7 egunetan banaturik

Hiri-liburutegia: 40 h eta 60 h artean, 6 edo 7 egunetan banaturik

Garapena praktikoa

Biztanleria tartea:	Asteko egitaraua	
	Orduak	Egunak
Udal Liburutegia		
3.000 biztanlera arte	20 ordu	5 egun
3.001etik 5.000ra bizt.	24 ordu	6 egun
5.001etik 10.000ra bizt.	34 ordu	6 egun
10.001etik 15.000ra bizt.	44 ordu	6 egun
15.001etik 20.000ra bizt.	56 ordu	7 egun
Hiri-lib. nagusia		
20.001etik 100.000ra bizt.	60 ordu	7 egun
Hiriburuak	75 ordu	7 egun
Hiri-liburutegia		
20.001etik 100.000ra bizt.	40 ordu	6 egun
Hiriburuak	44 ordu	6 egun

Beste irizpide batzuk. Orduak

- Gomendagarria da liburutegian izaten jarraitzen duten irekita urteko hamabi hilabeteetan.
- Udan, garai hauetan desberdinak tokiko egoeraren arabera aldatu ahal izango dira (biztanleriaren fluxuak, sasoiko zerbitzu guneak ...)
- Pertsona bakar bat zerbitzatzen liburutegien kasuan, lan-ordu astean publikoaren ordutegi baino handiagoa izan behar du,% 20 eta% 30 barne-zereginen artean.

Sarbide libreko funtsak

Sarbide libreko funtsak. Biztanleria tartekak

Estandarra: 1,6 eta 3 dok. bizt.-ko

5.000 bizt. bitartean	3 dok. / bizt.
5.001etik 10.000ra bizt.	2,5 dok. / bizt.
10.000 bizt.-tik gora	2 dok. / bizt.
Hiriburuak	2 eta 1,6 dok. bizt.-ko

Dokumentuak

Biztanleria tartea:	Estandarra	Dokumentuak		Lib. Nagusia		Hiri-liburutegiak	
		Behetik	Goitik				
5.000 bizt. bitartean	3 dok. / bizt.	3.000	15.000				
5.001etik 10.000ra bizt.	2,5 dok. / bizt.	12.500	25.000				
10.001etik 20.000ra bizt.	2 dok. / bizt.	20.000	40.000				
Hiri-sistemak:	Estandarra	Biztanleak	Dokumentuak	Banaketa	Funtsak	Banaketa	Funtsak
20.001etik 50.000ra bizt.	2 dok. / bizt.	20.001	40.000	70%	28.000	30%	12.000
		50.000	100.000	65%	65.000	35%	35.000
> 50.000 bizt.	2 dok. / bizt.	50.001	100.000	60%	60.000	40%	40.000
		100.000	200.000	55%	110.000	45%	90.000
Hiriburuak	100.001etik 200.000ra bizt.	190.000	380.000	50%	190.000	50%	190.000
	200.001etik 300.000ra bizt.	240.000	420.000	45%	189.000	55%	231.000
	300.000 bizt.-tik gora	350.000	560.000	40%	224.000	60%	336.000

Liburuak								
Biztanleria tartea:		Estandarra	Liburuak					
			Behetik	Goitik				
5.000 bizt. bitartean		2 liburu / bizt.		10.000				
5.001etik 10.000ra bizt.		2 liburu / bizt.	10.000	20.000				
10.000 bizt.-tik gora		1,5 liburu / bizt.	15.000	30.000				
Hiriburuak		1,5-1,2 lib / bizt.	279.278	423.240				
Hiri-sistemak:		Estandarra	Biztanleak	Liburuak	Lib. Nagusia		Hiri-liburutegiak	
					Banaketa	Liburuak	Banaketa	Liburuak
20.001etik 50.000ra bizt.		1,5 liburu / bizt.	20.001	30.000	70%	21.000	30%	9.000
			50.000	75.000	65%	48.750	35%	26.250
50.001etik 100.000ra bizt.		1,5 liburu / bizt.	50.001	75.000	60%	45.000	40%	30.000
			100.000	150.000	55%	82.500	45%	67.500
100.001etik 200.000ra bizt.		1,5 liburu / bizt.	190.000	285.000	50%	142.500	50%	142.500
200.001etik 300.000ra bizt.		1,3 liburu / bizt.	240.000	312.000	45%	140.400	55%	171.600
Hiriburuak		1,2 liburu / bizt.	350.000	420.000	40%	168.000	60%	252.000
300.000 bizt.-tik gora		1,2 liburu / bizt.						

AVE*										
Biztanleria tartea:		Estandarra	AVE							
			Behetik	Goitik						
5.000 bizt. bitartean		1 AVE /bizt.	1.000	5.000						
5.001etik 10.000ra bizt.		0,5 AVE / bizt.	2.500	5.000						
10.000 bizt.-tik gora		0,5 AVE / bizt.	5.000	10.000						
Hiriburuak		0,5-0,4 AVE / bizt.	93.093	141.080						
Hiri-sistemak:		Estandarra	Biztanleak	AVE	Lib. Nagusia		Hiri-liburutegiak			
					Banaketa	AVE	Banaketa	AVE		
20.001etik 50.000ra bizt.		0,5 AVE / bizt.	20.001 hab.	10.000	70%	7.000	30%	3.000		
			50.000 hab.	25.000	65%	16.250	35%	8.750		
			50.001etik 100.000ra bizt.	0,5 AVE / bizt.	50.001 hab.	25.000	60%	15.000	40%	10.000
100.001etik 200.000ra bizt.		0,5 AVE / bizt.	100.000 hab.	50.000	55%	27.500	45%	22.500		
			200.001etik 300.000ra bizt.	0,45 AVE / bizt.	190.000	95.000	50%	47.500	50%	47.500
			300.000 bizt.-tik gora	0,4 AVE / bizt.	240.000	108.000	45%	48.600	55%	59.400
Hiriburuak			350.000	140.000	40%	56.000	60%	84.000		

* AVE: soinu-dokumentuak, ikus-entzunezkoak eta elektronikoak

Liburu elektronikoetarako irizpideak

Ez dago estandarrik definiturik liburutegi publikoetako liburu elektronikoetarako.

Hala ere, irizpide hauek aintzat hartzea gomendatzen dugu:

- Liburu elektronikoa (edo e-booka) da liburu baten bertsio elektronikoa, interneten edo beste formatu elektronikoren batean eskuragarri dena. Edukia testuan, audioan (audioliburua), irudi finkoan edo multimedia hizkuntzetan egon daiteke.
- Liburu elektronikoak liburutegi baten funtsaren barruan daudela joko da, baldin erabiltzaileek kontsultatu edo maileguan hartu ahal badituzte, ohiko beste liburuen baldintzetan.
- Liburutegi baten funtsetako liburu elektronikoak liburu inprimatuekin batera kontabilizatu behar dira, hemengo estandarrak eta haiei loturiko adierazleak kalkulatzeko garaian.
- Espero izatekoa da liburu elektronikoek, arian-arian, liburu inprimatuen tokia hartuko dutela liburutegietan
- Gomendatzen dugu liburutegiek gaur egun liburu elektronikoak irakurtzeko gailuak izatea (readerrak, tabletak), aretoan bertan kontsultatzeko edo erabiltzaileen etxeko maileguari begira.

Irizpide hauek aplikagarriak dira orobat soinu-dokumentuetarako eta ikus-entzunezkoetarako.

Aldizkako argitalpenetarako irizpideak

Ez dago estandarrik aldizkako argitalpenetarako, baina honako irizpide hauek gomendatzen ditugu:

- Liburutegi bakoitzak (edo hiri-sare bakoitzak) aldizkako argitalpenei buruzko bere politika propioa ezarri behar du (egunkariak eta aldizkariak), eta erabiltzaileei eskuratu bai paperezko edizioak bai internetekoak.
- Egunkarien artean, lurralde-eremu ezberdinetakoak eskaini behar dira, nazioartekoak barne, kiroltakoak eta ekonomiari buruzkoak. Doako egunkariak ere eskaini behar dira, halakorik badago.
- Gai orokorretako eta gai berezietako aldizkariak ez ezik, tokiko aldizkariak eta buletinak ere eskuratu behar dira, komertzialak zein doakoak izan (udalena, elkarteenak, ikastetxeenak, erakundeenak...).

Bilduma mantentzeko irizpideak

Eskuratze eta bajen urteko indizea bilduma osoaren % **10en inguruan jarri behar da.**

Bildumaren estandarrak eta banaketa-irizpideak aldatu eta egokitu daitezke, honako faktore hauen arabera:

- biztanleriaren ezaugarri demografikoak (sakabanaketa handiagoa edo txikiagoa...),
- biztanleria-egitura (gazte- edo zahartze-indizea...),
- ezaugarri historiko edo kulturalak.

Erabiltzaileen funts-beharrak asetzeko, sare barruko liburutegien arteko mailegua erabiliko da.

Arreta eskainiko zaio argitalpen berriak eskaintzeari, bai kopuru aldetik bai kalitate aldetik, eskaintza eguneratua eta erakargarria izateko.

Bilduma garatzeko irizpideak

Liburutegi **sortu berriek** hiru hilabete izango dituzte, gehienez, beren funtsak hornitzeko, estandarrak bete arte.

Bildumaren banaketari buruzko irizpideak

Bilduma banatzea

	Bilduma	Sekzioa
Gazte-helduak	%70	%100
Informazioa eta kontsulta	%35	%50
Fikzioa	%23	%33
AVE*	%12	%17
Infantil	%30	%100
Informazioa eta kontsulta	%10	%33
Fikzioa	%15	%50
AVE*	%5	%17

Hiri-liburutegi bakoitzean nahitaezko funts oinarrizko bat egongo da eta arreta jarriko zaio tokiko bildumari (kokatuta dagoen auzo edo barrutiari buruzko informazio guztia); eskaintza hobetzeko, komeni da sistemako liburutegi bakoitza arlo edo gai espezifiko batean espezializatzea.

Iturria: *Liburutegien hiri-sistemak*

* AVE: soinu-dokumentuak, ikus-entzunezkoak eta elektronikoak.

Sarbide informatikoa duten gune publikoak

Sarbide informatikoa duten gune publikoak. Estandarrak

Aretoetarako estandar orokorra: 3 PC + 1 PC / 1.000 bizt.

Hiri-sareak

L. nagusia: 20 PC

Hiri-lib. bakoitzak: 10 PC

Garapen praktikoa

Biztanleria tartea:

Postu informatikoak

		Postu informatikoak		Postuak guztira	Postuak guztira
		Behetik	Goitik		
20.000 bizt. Bitartean	3 PC + 1 PC / 1.000 bizt.	4	23		
Hiri-sistemak	Mota	Postuak	Postuak guztira	Postuak guztira	Postuak guztira
20.000 bizt.-tik gora	L. nagusia	20	30		170
	Hiri-lib. Bakoitzak	10			

Sarbide informatikoa duten guneak, prestakuntza-geletan

Aretoetako sarbide publikoetako PCei prestakuntza-geletakoak gehitu behar zaizkie:

Prestakuntza-gelak

350 m2-tik gorako udal lib.-etako gela	9 PCs
Hiri-sareko lib. nagusiko gela	13 PCs
Gela ibiltari bakoitza	11 PCs

Irakaslearentzako PC bat barne

Gela ibiltaria: Informatika gela baten hornidura, zerbitzugune ezberdinetan txandaka erabil daitekeena, hardware mugikor batez osatua.

Hiri-sareetan, 50.000 biztanletik gora gela ibiltari bat egon behar da 100.000 biztanleko edo horren zatikiko.

· Gomendagarria da, ahal dela, KZguneak liburutegi publikoetan txertatzea; oso-osorik ezin bada, bai behintzat programazio egonkor eta zerbitzu publikoari buruzkoan.

Beste irizpide batzuk. Sarbide informatikoa duten guneak

PC guztiek edo sarbide informatikorako gune guztiek interneteko lotura eta software-pakete estandarrak izango dituzte.

Zerbitzugune guztiek erabiltzaileentzako WiFi lotura izango dute.

Komeni da argindarra hartzeko nahikoa hartune izatea publikoarentzako guneetan.

Banda-zabalerari buruzko irizpideak ezarri beharko dira interneteko loturak egiteko, eta bereizi egin beharko dira: barne-erabilerarako loturak, erabilera publikorako eta prestakuntza-geletako PCetako loturak, eta WiFi bidezko loturak.

Komenigarria izan liteke, baita ere, ordenagailu mugikorrek eta beste irakurketa-gailu batzuk eta lan intelektualerako edo sortzailerako beste gailu batzuk izatea aretoan bertan erabiltzeko edo maileguan etxera eramateko.

Langileak

Langileentzako estandarrak

Betiere lanaldi osoko diharduten langileei buruz (ETC)

Liburutegiak:	Liburuzainak			Beste langile batzuk		Guztira
	A1 Taldea	A2 Taldea	C1 Taldea	Teknikariak * (A2 edo B Taldea)	Administrariak (C1 edo C2 Taldea)	
5.000 bizt. bitartean		0 - 1	1 - 2			1 - 2
5.001etik 10.000ra bizt.		1	2 - 3			3 - 4
10.001etik 20.000ra bizt.	0 - 1	0 - 1	3 - 6	1	-	5 - 8

Redes urbanas	Liburuzainak			Beste langile batzuk		Guztira
	A1 Taldea	A2 Taldea	C1 Taldea	Teknikariak * (A2 edo B Taldea)	Administrariak (C1 edo C2 Taldea)	
Hiri-sistemak **						
20.001etik 50.000ra bizt.	1	1 - 2	7 - 9	1	1	11 - 14
50.001etik 100.000ra bizt.	1 - 2	2 - 3	8 - 10	1	1	14 - 16
100.000 bizt.-tik gora.	2 - 3	3 - 5	10 - 19	1 - 2	2 - 3	18 - 32
Hiri-lib. (bakoitza)		1	6			7

* Kudeatzaile soziokulturala, hezitzailea...

** Liburutegi Nagusian publikoari begira diharduten langileak eta sareko zerbitzu zentraletakoak barne hartzen ditu

Estandar hauetan ez dira sartzen

- administrazio langileak eta informatikako mantentze-lanetakoak
- Segurtasuneko langileak eta garbitzaileak